

KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

BASURDE EHIZTARIAK

ZALETASUN BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA, 016

orio

Anitza, bakarra.

Ezagutu nahi duzu Zaragueta herri eskola?
Matrikulatzeko epea urtarrilaren 17tik 28ra

📱 🌐 📺 📧 @zaraguetaipi

**HARTU
TXANDA!**



kalea@zaragueta.eus
943 89 92 43



neerü
YOGA ETA JARRERA METODOAK
OREKA MUGIMENDUAN
Itzalondo 5 behean, Orío • 686 02 05 17



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38



Lurretik
Garbiketak
SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orío
636 18 82 92 / info@lurretik.es

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.kristaleraanorgatxiki.com
943-37 17 33 • 610 45 93 45

- Eralkin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 • ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.

arkaitz taberna
••• urio •••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KOMBINATUAK
- KARTA

*Tortasas cárnica
y de cerdo*

abeslari kalea 6 • 943-83 16 57



fontana
iturgintza
Iturgintza • gasa • berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainu-iturria kendu eta dutxa jartzea
- Zoru eraldatzea

Arrantzale kalea, 3 • ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontanena-fontana.com
943-53 98 88 • 661 26 28 28



azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Anizaga kalea
943-83 05 37



Zarautz
24 ordu
zure zerbitzura

Araba kalea, 35
ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletzerbitzuak.eus

Beilatokia
Lekualdatzeak
Eginbide guztien tramitazioa



KARKARA 435

2022-URTARRILA

AZALEKO ARGAZKIA: UTZITAKOA



Aurkibidea

5 Iritzia

Aitziber Arzallus

Urte berri on denoi!

6 Hitz tantak

Iñigo Gaiton

Xabier Aranburu

8 Izpiak eta hizkiak

Iban Egiguren *Oreinen makakorroa*

10 Gutunak

13 Herrian galdezka

14 Erreportajea

Aitziber Arzallus

Basurdetarako afizioa, ia-ia obligazioa

22 Akuilua hartuta

Orioko Emakumeon* Ahalduzte Eskola

Berdintasun diagnostikoaz

23 Nire honetan

Onintza Lete Arrieta

Munduan bakarra

25 Ikasleak idazle

Orioko Herri Ikastola *Argitxori elkarriketa*

Haizea Gozategi *Umorea, umore*

26 Oroimenaren kutxa

Iñaki Iturain

Eugenio Azkue: margolari erromantiko oriotarra

32 Erreportajea

Aritz Pardina

Euskaraz Gazte: herri-literatura giltzarri

37 Iritzia

Egoitz Dorronsoro

Orgasmoaren arrakala

39 Osasuna

Jesica Morales

Vinyasa yoga

41 Euskara

Orioko AEK eta Maria Maistra Haurreskola

Euskarari dagokionez, nolako Orio nahi dugu hamar urte barru? (V)

42 Plazan bazan

44 Zerbitzuak

45 Agenda

46 Hasi bertsotan

Jon Itsaso

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea

Koop. Elk.

Soreasu 1. 20730

AZPEITIA

943-83 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aitziber Arzallus

Erredaktore taldea

Onintza Lete Arrieta

Iñigo Gaiton

Diseinu arduraduna

Maria Lopez

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aritz Pardina

Iñaki Iturain

Egoitz Dorronsoro

Jesica Morales

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)

Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

iglesiassarrailagileak@yahoo.es
www.iglesiassarrailagileak.com
Eribera kalea, 14 • ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

**24orduko
zerbitzua**



**Gabon
TABERNA**

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



**Joseba
AROTEGIA • CARPINTERIA**

687 683 427
@josebaarotza@gmail.com

**ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN**



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 • ORIO
info@garmendia.com



KAIOA

kaioa_denda
www.kaioa.es

**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



**PIZZERIA
KALETA**

Arantzadi kalea, 10
943-24 80 46



Kolon Txiki
edariak - jaxkak

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel: 943-83 00 44



**KATU
HORIA**

ESTROVALAK, 10
JESU OREO
+34 943 11 66 99

LABORATORIO
668 89 1779



**kutixi
kafetegia**

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



**LASTER
DESATASCOS**

- Libratutak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teillatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikusapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
688 88 65 36 (Lamaldiak)

Abaromendi 3, 20810 ORIO • Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE • 943-75 14 31 (bulegoa)

Urte berri on denoi!



AITZIBER ARZALLUS

Urte berriak inspiraziorik ez dit ekarri nonbait, eta aldizkariari sarrera emateko artikulua hau zertaz idatzi ez nekiela nenbilen. Pasatako urteaz jardutea dagoeneko alferrik, 2022ak ekarriko digunaz zalantzak besterik ez, eta COVID-19a nahiago aipatu ere ez egin. Horretan nintzela, eskuartean duzuen ale honi azken errepasoa ematea okurritu zait zer topatuko, eta nola esan: badela aniztasuna Aian eta Orion! Basurde ehiztariak, literaturzaleak, yoga irakasleak, feministak, debeku guztien gainetik aurrera egitea erabakitzen duten gazteak, itsasoaren maitaleak, orgasmoaren arrakalaz hitz egitera ausartzen diren zutabegileak, duela berrehun urtekoez jardun dutenak, Gabon garaian etxean falta izan dituztenekin gogoratu direnak... Bada aukera, beraz.

Normala den bezala, batzuei erakargarriago izango zaizkizue gai batzuk; besteoi, beste batzuk. Eta baliteke baten bati haserrea ere eragitea 48 orritik zortzi basurde ehiztariei eman izanak. Kexak niri, neurea baita erreportaje horren ardura guztia. Nire partetik, eskerrak eman besterik ez astelehen iluntze batean Orioko Kultur Etxera etorri eta eskatutako azalpen guztiak eman zizkidaten hiru ehiztariei. Horregatik, eta baita, nik eskatuta, ehizara argazki kamera eskuan atera izanagatik ere.

Ez naiz hasiko basurde ehiza defendatzen, ez daukadalako behar beste ezagutza eta argumentu. Baina ez naiz hasiko basurde ehiztarien kontra ere, arrazoi berberarengatik. Aia, Orio eta inguruotako 45 lagunek asteburuero-asteburuero zer egiten duten kontatzea izan da asmo bakarra, polemikarik sortzeko batere intentziorik eta gogorik gabe. Sortuko balitz, horri ere egingo genioke leku, beste edozeri egiten diogun modu berean.

Zer esan nahi dudan horrekin? Inor ez garela denon gustuko, eta, horretara jarritz gero, beti topatuko ditugula batagatik eta besteagatik jarduteko 'motiboak', geure kontraesan eta hankasartzei begira jartzea baino, askoz errazagoa delako besteengatik jardutea. Egia esan, dezenteko pereza ematen didate gauza horiek, baina, beno, zer egingo diogu ba...

Basurde ehiztariekin egin dudana modu berean, eskerrak eman zenbaki honetan eta aurreko guztietan gure eskaerak eta proposmenak onartu dituzuen gainontzeko herritar guzti-guztioi ere, eta jakin, aurrerantzean ere lata ematen jarraituko dizuegula, bata ez bada bestea eskatuz, zuek gabe ez baitago hau egiterik.

Eskerrik asko eta urte berri on denoi! ■■■

**AURRERANTZEAN ERE
LATA EMATEN
JARRAITUKO DIZUEGU,
ZUEK GABE EZ BAITAGO
HAU EGITERIK**

Xabier Aranburu

TESTUA: IÑIGO GAITON

ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Itsasoa eta sorospena. Bi mundu horien bueltan ibili da Xabier Aranburu (Donostia, 1978) azken hogeita bost urteetan. Donostiako moilan bizi izan zen umetan eta gaztetan, Gurutze Gorriaren zentralaren parean, eta han inguruan egindako ehundaka orduetan piztu zitzaion bokazioa. Orain Orion bizi da, eta Pelotari kalean duen lokalean jarri dio hitzordua KARKARari.

Uretako motoak, sorospenerako ohol luzeak, neoprenoak... Itsasora ateratzeko gogoa ematen du lokalera sartu eta materiala ikusteak. Zer ofiziotan aritzen zara?

Gurutze Gorrian urte luzez aritu nintzen lanean, eta gero, Mediterraneo itsasora ere egin nituen espedizio batzuk, Lesbosera (Grezia).

Erreskatatzaile eta itsasontzien patroil lanetan jardun nuen, migrantei laguntzen. Aurrerago, nire kabuz lanean hasteko asmoarekin abiatu nuen Urgatz proiektua. Oinarrian, lehen sorospenez eta itsas salbamenduaz formazioak ematen ditugu, interesa duen ororentzat: hondartzetako eta igerilekuetako sorosleentzat, guraso taldeentzat, enpresetako langileentzat, suhiltzaileentzat, auzoetako elkarteenentzat...

Zer da, zehazki, erakusten duzuen?

Erreanimazio bat nola egiten den, desfibriladoreak nola erabili, eta beste mila gauza. Funtsean, itsasoan edo lehorrean, ondoan gerta dakiguen ezbehar batean aurrean nola jokatu erakusten dugu.

Halako gauzak sorosle edo osasun arloko profesionalen gain uzten ditugu. Gizarteak lehen sorospenen inguruko kontzientzia eta ezagutza gehiago izan beharko luke?

Bai, zalantzarik gabe. Zerbait gertatuz gero, anbulantzia bat beti iritsiko da, baina ailegatu artean gertatzen denak, hil ala biziko garrantzia izaten du kasu batzuetan. Denbora tarte horretan nola jokatu behar den erakustea da gure helburua; lehen sorospen horien inguruko ezagutza jendartearen zabaltzea da gure xede nagusia.

Aurrerago, Basque Water Safety sortu zenuen. Zer helbururekin?

Itsas salbamenduari modu espezifikoagoan lotutako proiektua da. Estropadetan, igeriketa zeharkaldietan eta halako jardueretan segurtasuna bermatzen dugu: protokoloak, anbulantzien koordinazioa, ezbeharren bat gertatuz gero nola jokatu...

Surf munduan ere dezente ibiltzen zarete. Hawaiiin, adibidez, badira olatu erraldoietako saioetan segurtasuna bermatzen duten enpresak, baina hemen nahikoa berria da zuek egiten duzuen.

Euskal Herrian, DYA, Gurutze Gorria eta halako erakundeak ibili dira sorospen lanetan batez ere, baina Mediterraneo aldean, adibidez, ohikoagoa da enpresa pribatuek ere horretan jardutea.

Surfari dagokionez, bi lan esparru ditugu: batetik, uretako motoak segurtasunerako gailuekin prestatzen ditugu: esaterako, ur motorra olatu artean irauliz gero, aulkia airean ez ateratzeko zintak, ez irristatzeko gomazko euskarriak, finkagailuak... Bestetik, olatu handietako saioetan segurtasun eta sorospen zerbitzua eskaintzen dugu. Protokoloak zehazten ditugu surflariekin, ezbeharren bat izanez gero itsasoan eta lehorrean nola jokatu jakiteko. Horrez gain, zaintza uretatik egiten dugu, uretako motoekin.

Axi Muniain, Natxo Gonzalez, Xabi Lopez eta Justine Dupont-ekin aritzen zara lanean, besteak beste. Olatu handietan punta-puntan dabilzan surflariak dira.

Bai. Atoi surfean, surflariak soka bati eusten dio uretako motoak garraiatu dezan, eta soka horiek ezaugarri bereziak dituzte. Bada, material tekniko hori sortzeari ekin genion, eta harrera oso ona izan du.

Axi Muniainek eta Francisco Porcellak osatutako bikoteak guk prestatutako uretako motoa erabili zuten Nazareko (Portugal) nazioarteko lehiaketan, eta Dupont ere gure sokekin lehiatu zen. Ederra izan zen gure materiala olatu erraldoien eta munduko surflari onenen artean ikustea. ■■■



Oreinen makakorroa

ARGAZKIA: IBAN EGIGUREN

TESTUA: IBAN EGIGUREN

Oreinei lehen aldiz argazkiak egin nizkienean, bete-betean harrapatu ninduen haien munduak. Ezin dut hitzez adierazi sortzen didaten sentimendua, hain da handia, desberdina... Zamorara (Gaztela eta Leon, Espainia) joaten naiz oreinek makakorroak egiten dituzten garai berezian, argazki kamerarekin animalia horiek *ehizatzer*a. Urtero egiten dut bidaia orain. Goizean goizetik, ilunpean ibiltzen gara haien atzetik, sasi artean, eta eguzkia ateratzen den bitartean animaliek elkarri nola deitzen dioten entzuten egoten gara. Ikaragarria da haien dei, orru edo makakorroa. Batzuetan, oreinek begiratu ere egiten digute, irudian ikus daitekeenez, argazkirako geldirik baleude bezala. Klik egin eta gero, saltoka alde egin zuen honek, basoan barrena ezkutatzer





Ejiguera Arzak

Kukuarrin, artez eta maitasunez

E.M.G.

Pasa den azaroaren 21ean, udazken kolorez jantzitako igande hartan, aspaldiko partez, lagunartean abiatu ginen zortzi lagun Kukuarrira. Tontorrera iritsitakoan, talde-argazkia egiten hasita, gurutzearen oinarrian lau koadro txiki topatu genituen: marko banatan, lore lehor prentsatuekin egindako konposizio ederrak. Betidanik maite izan dut nik lan delikatu hori.

Artelaren ondoan, bi sobre zeuden, lakrez itxita. Bat zabaldua, barruko gutuna irakurri genuen. Paper ederrean eta letra ezin txukunagoan, sinatu gabeko hitzen egileak zioen bere ama zena askotan joaten zela Kukuarri aldera, asko maite zuela inguru hori. Eransten zuen koadroak amak eginak zirela bere etxeko txokorik intimoenean, Kukuarrin bildutako lore, hosto, belar eta adartxoekin moldatuak: lehortu, prentsatu, hautatu, moztu eta kartulina eder batean mimoz itsatsita. Ezagutu gabe, emakume artista haren irudia etorri zitzaidan. Zenbat pentsamendu ibiliko ote zituen buruan langintza horretan ari zela!

Idatziaren bukaeran, gonbitea egiten zigan: koadro haietakoren bat gustukoa izanez gero, hartzeko eta lasai etxera eramateko, hil berria zen



E.M.G.-k Kukuarriko gurutzearen oinarrian topatu zituenak. E.M.G.

amaren opari gisa; erantsiz, ama, jada, Kukuarriko harritzko gurutzearen itzalean zegoela, lore, hosto eta belarrekin bat eginda.

Gehiegi pentsatu gabe, bat hartu nuen. Hondo berdea daukan erramuarena. Etxeko salan daukat. Duela lau urte joandako nire amaren pintura-lan baten ondoan jarriko dut. Horrela, bi lanak ikusten ditudanean, Kukuarriko eguna gogoratuko dut; eta konturatuko naiz, etxe gehienetan badagoela joandakoek utzitako edertasuna, eta edertasun hori konpartitua izanda,

**"ETXE GEHIENETAN
DAGO JOANDAKOEK
UTZITAKO EDERTASUNA,
ETA HORI KONPARTITUA
IZANDA, EDERRAGO"**

ezezagunekin bada ere, are ederragoa dela.

Mila esker artistari eta gutunaren egileari! ■■■

Oriyoko Aske Festen balorazioa

ETXELUZE GAZTETXEKO ASANBLADA

Pasa dira herriko ez-festak eta Oriyoko Aske Festak, eta balorazio bat egitera gatoz Etzeluzetik: lehendabizi eskerrak eman nahi genizkieke borondatez lanean jardun diren herritar eta kanpotar denei; egoera zailtzen joan bezala lan karga asko igo zitzaigun eta denon artean emandako erantzuna ezin duinagoa izan delakoan gaude. Txalo bero bat zuei!

Ezta erraza izan, hasieratik oztopo eta traba asko gainditzen joan behar izan degu herriari festa egitarau alternatibo bat eskaintzeko. Hasieratik gure borondatea herrian festak egitea izan da,

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Oriko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

garbi daukagu Herriko Plaza dela herriaren festa eremua, baina ezinezkoa izan da bertan festak egitea eta Etxeluze erabili behar izan degu festak aurrea eramateko. Oztopo eta traba horien gainetik, Etxeluze Asanbladak oso balorazio positiboa egiten du festa egunak aztertuta, hausnartutako neurri guztiak bete dira hasieratik, jende ugari gerturatu da, asko aurreneko aldiz, eta horrek erakusten du herrian eremu autogestionatu bat edukitzea inoiz baino beharrezkoagoa dela.

Hala ere, gertakari eta egoera deseroso kezagarriak ere pairatu ditugu bertan borondatez lanean jardun



Etxeluze gaztetxea. UTZITAKOA

"ESKERRAK, BORONDATEZ LANEAN JARDUN DIREN HERRITAR ETA KANPOTAR DENEI"

garenok. Hasiera-hasieratik esan zen gure espazioan ez zela inongo jarrera erasokorrik onartuko eta errespetua eskatu zen besteei eta batez ere borondatez lanean ari direnekiko; horregatik, hirutik bi egunetan ixtera derrigortuta sentitu ginen jendearen jarrera oldarkor eta biolentoak ez genituelako onartuko. Hemendik salaketa esplizitu bat egin nahi dugu garbi uzteko jarrera horiek ez daukatela lekurik gure espazioetan eta jarrera hori erakusten duten pertsonarik ez dugula onartuko. Ez genuen gustuz festa bukatuarazi eta itxi, eta zentzu horretan, aurrera begira gertakari horietatik ikasteko eta gure eraginkortasuna hobetzeko hausnartzeko borondatez gaude.

Azkenik, aurreneko aldiz Etxeluze gaztetxeak debeku bati aurre egin behar izan dio eta hori ere ez genun aipatu eta salatu gabe utzi nahi. Etxeluze okupazio batetik datorren gune autogestionatu bat da, eta erabaki guztiak Etxeluze Asanbladan hartzen dira, eta horrez gain, antolatzen den guzti-guztiaren ardura bere gain hartzen du Asanbladak. Hitz hauen bidez adierazi nahi dugu berdinean jarraituko dugula, herritik herriarentzat, horizontaltasunetik, indibiduo guztien askatasuna erdiesteko borrokan, eta ez dugu onartuko autogestio hori kolokan jarriko duen esku-hartzerik!

Gora Etxeluze gaztetxea! ■■■

JAIOBERRIAK

- **Laida San Sebastian Egaña.**
Orion, azaroaren 19an.

HILDAKOAK

- **Juanita Iruretagoiena Gurrutxaga.**
Orion, abenduaren 11n. 77 urte.
- **Antton Aiestaran Lertxundi.**
Orion, abenduaren 23an. 88 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

MARKETIN ESTRATEGIAK



- MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANEN DISEINUA ETA GARAPENA.
- ONLINE ETA OFFLINE ESTRATEGIAREN PLANIFIKAZIOA ETA EXEKUZIOA.

GUKA  ZERBITZUAK

Nola joan zen lehengo urtea? Zer eskatzen diozu 2022ari?



OIER AZKUE

lazko urtea nahikoa normal pasatu nuen nik, egia esan. Azken hilabeteetan, errehabilitazio prozesu batean murgilduta nago bete-betean, eta etxean, kalean txakurrarekin edo kiroldegian egiten ditut ordu gehienak. Hortaz, izurriteak ez dit gehiegi ere eragin eguneroko martxan. Hala ere, urte berriari eskatzen diot pandemia bukatzeko edo arintzeko behintzat. Nire bikotekideak Madrilen (Espainia) egiten du lan osasun arloan, eta izurritea bukatu arte han egongo da ziurrenik. Pandemia bukatuz gero, berarekin gehiago egoteko aukera izango nuke. Bestalde, kontzertuak ikustera joatea ikaragarri gustatzen zait, eta martxa hartzen ari ginela, seigarren olatuaren ondorioz emanaldiak berriro gutxitu dira. Horrek asko izorratzen nau.



VANESSA MARENGO

Lehengo urtean, lanari dagokionez, 2020an baino mugimendu gehiago izan genuen plazan dugun kafetegian, baina aurreko urteetan normala zena baino gutxiago. Izurritearen eragina oraindik antzematen da. Bizi dugun garaia kontuan izanik, urte berriari osasuna eta lana eskatzen dizkiot, bi horiekin konformatzen naiz. Normaltasunez bizi ahal izateko gogo handia dut, beste herrietako lagunekin lasai eta lehen bezala elkartu ahal izatekoa. Orain ezin dugu bizitza soziala lasai egin, eta jendaurreko negozioa dugula kontuan izanik, are gutxiago, ardura handiarekin jokatzeko saiatzen gara. Seigarren olatuak egoera belztu du berriro, baina ez da itxaropena galdu behar. Ea poliki-poliki bada ere, osasun krisia arintzen joaten den.



NAIMA LOPETEGUI

lazko urtea ez da oso ona izan, maskara erabili behar izan dugulako batez ere, eta Ikastolan, adibidez, ez delako eroso izan soinean jantzita eramatea uneoro. Gainerakoan, ondo joan da amaitu berri den urtea. 2022a, berriz, nahiko nuke festa urtea izatea eta maskara erabili beharrik ez izatea. Familiarekin bazkariak egitea ere nahiko nuke, eta baita lagunekin zinemara joan eta bestelako ekintzak egin ahal izatea ere. Festei dagokienez, gehien tiobiboak bota ditut faltan, baita lagunekin batera eta bestera ibiltzea ere. Bestetik, Gabonetan nahiko nuke beti bezala amaren izebarekin eta elkartzea haien etxean– jende asko batzen ginen, amaren lehengusuak, lehengusu txikiak etab.– azken bi urteetan ezin izan dugulako; izan ere, adinekoak dira. ■



Basurdetarako afizioa, ia-ia obligazioa

Irailetik apirilera, asteburuak eta jaiegunak okupatuta izaten dituzte Jesus Mari Portularrume 'Portu' -k, Arkaitz Etxarrik eta Xabier Astigarragak. Basurde ehiztariak dira, Aia, Orio eta inguruko herrietako 45 bat lagunek osatzen duten kuadrillakoak. Beste ezeren gainetik, zaletasuna dute ehiza, baina basurdeen ugaritzea dela eta, presionatuta sentitzen direla salatu dute; afizio zutena, obligazio bihurtzen ari zaiela. Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Aitziber Arzallus eta utzitakoak**.



Arkaitz Etxarri (Ereñotzu, Hernani, 1979) Aiako bizilagunak pikondo baten azpian jarri eta baliranekin tiroka pasatzen zituen arratsaldeak umetan. Jesus Mari Portularrume *Portu*-k (Aia, 1971) eta Xabier Astigarragak (Orio, 1973) ere antzerako oroitzapenak dituzte; hango zepoa, hemengo tranpa... Ehizarako afizioa etxetik jaso dute hirurek. "Baserri giroan hazitakoak gara eta gurasoak eta izeba-osabak beti ibili izan dira ehizean: hasieran, erbitan; gero, azeritan; eta horiek denak bukatu zirenean eta basurdea ugaritzen hasi zenean, basurdetan", esan du Portuk. "Normalean hala izaten da, umetan hasten da zaletasuna sortzen, eta gaztetan hasten zara praktikatzen", jarraitu du Etxarrik. "Oso arraroa da etxean giro hori bizi ez duen batek basurdetan hasi behar duela erabakitzea, edo 40 urterekin arma dendara joan, erriflea erosi eta basurdetan hastea". Hala ere, ehizarako sena ekarri egiten dela ziurtatu dute hirurek, etxean hori ikusten duten denak ez direla ehiztariak irteten. Astigarragak jarri du adibidea: "Gu lehengusu pila gara, eta ehiztariak gutxi; arreba eta biok, ordea, amorratuak".

Aukera izan zuten bezain pronto hasi ziren basurdetan, "17 bat urterekin", zehaztu du Portuk, eta gaur egun, kuadrilla bereko kide dira hirurak. Etxarrik eman ditu azalpenak: "Gipuzkoan, basurdetan ibiltzen diren 51 kuadrilla daude, eta gurea da horietako bat. Kuadrilla bakoitzak ehizarako bere eremua dauka; gurea da Aia, Orio, Zizurkil, Asteasu eta Aduna ingurua, eta kuadrillako jendea ere herri horietakoa da". 45 bat lagun dira kuadrillan, denak gizonezkoak bat izan ezik,

Irailean hasi eta apirileko bigarren asteburua bitartean, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan atera daitezke ehizara, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenarekin, beti txakurrak lagun dituztela.

Ezkerretik eskuinera: Xabier Astigarraga, Arkaitz Etxarri eta Jesus Mari Portularrume 'Portu'.



Astigarragaren arreba, eta adinari dagokionez, denetariko jendea dagoela diote. "Lehen, gehiago ziren zaharrak; baina, azkenaldian, jende gaztea ere hasi da pixka bat mugitzen. Gazteenek 18-20 urte izango dituzte, eta zaharrenak 80 bat urte izango ditu", zehaztu du ereñotzuarrak.

Basurde ehiztariek irailean hasten dute denboraldia, eta zazpi bat hilabetez aritzen dira jo eta su, apirileko bigarren asteburura arte. "Garairik onena, oraingo hau izaten da, abendu-urtarril ingurua: fresko egiten du, mendian hostorik ez dago...", esan du Astigarragak. Txarrena, berriz, iraila izaten dela baieztatu du Etxarrik: "Artean bero egiten du, mendia jantzia egoten da, eta txakurrekin beldurrez ibiltzen gara. Izan ere, txakurra, ardia bezela, pixka bat estutuz gero, bertan gelditu daiteke bero kolpeak jota".


Gogoan dute lehen denboraldia dezente motzagoa izaten zela, otsailean amaitzen zutela, baina duela urte batzuk, luzatzea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Porturen arabera, "basurdea ikaragarri dagoelako". Aitortu du denboraldia luze egiten dela: "Gogorra egiten da asteburuero-asteburuero hor ibiltzea, eta geldialdi bat egitea denoi etortzeko zaigu ondo, gero berriz ere gogoz hasteko".

Basurdeen ugaritzeaz diotena egia dela ziurtatzeko, datuetara jo du Etxarrik: "2010-2011 denboraldian, 1.216 basurde ikusi eta 619 bota genituen; 2015-2016 denboraldian, 2.356 ikusi eta 1.266 bota; eta iaz, 4.013 ikusi 2.644 bota". Gipuzkoa guztiko datuak dira horiek, 51 kuadrillek ikusitakoen eta botatakoen baturak. Datu horiek erakusten dute azken hamar urteotan urtez urte hazten joan dela Gipuzkoako basurdeen populazioa, eta gaur, duela hamar urte baino ia lau aldiz basurde gehiago daudela Gipuzkoako mendietan.

Ehiza egun bat

Denboraldian, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan dute ehizara irteteko aldundiaren baimena, eta zortzi-hamar laguneko taldea elkartzeko modua duten guztietan ateratzen dira, hori baita eskatzen dieten gutxieneko kopurua.

Goizean goiz ekiten diote lanari, eguna argitzerako, Porturen esanetan. "Normalean basurdeak gaez ibiltzen dira eta egunez gorde



egiten dira; hortaz, guk egin behar izaten duguna da non gordetzen diren topatu. Aurrena, hamar bat lagun-edo juntatzen gara, batzuk zakurrekin, eta arrasto bila hasten gara han eta hemen. Batzuetan jakiten dugu gutxi gorabehera nondik hasi, baserritarrek abisatu egiten digutelako basurderik inguruan ikusiz gero".

Basurderen bat atzematen dutenean, diputazioari jakinaraztea izaten dute lehendabiziko eginbeharra. Portuk jarraitu du hizketan: "Basurde bat topatzen dugunenean, batida edo uxaldia egiteko aukera edukitzen dugu, baina legezkoa izan dadin, diputazioa jakinaren gainean jarri behar izaten dugu. Horretarako, aplikazio bat daukagu, eta ezertan hasi aurretik, fitxa bat ireki behar izaten dugu dena zehaztuz: zer kuadrilla garen, gure eremuko zer tokitan egingo dugun eta abar. Parte hori ireki gabe, ez daukagu batidarik egiterik, edozer gertatzen dela ere, hori izango bailitzateke diputazioaren baimenpean ari garela frogatuko lukeen agiria. Gainera, tresna horren bidez, diputazioak berak ere batiden gaineko informazio guztia eskura izateko aukera dauka".

Behin aldundia jakinaren gainean jarrita, kudrillako gainontzekoei Whatsappez abisua pasatzen diete, eta basurdea ikusi duten lekura gerturatzen dira haiek. "Zakurdunak sartzen dira basurdea lokalizatuta daukagun lekura, eta gainontzekook eremua itxi egiten dugu; horixe izaten da batida".

Uxaldiak beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuta egiten dituztela ziurtatu dute, mendian dabilen inor arriskuan jar ez dezaten. "Ixten dugun eremua seinaleztatzeaz gain, geu egoten gara zaintzen, batida egin behar dugun eremura inor sar ez dadin", adierazi du Portuk. Aitortu du tarteka herritarrekin gorabeherak izaten dituztela: "Batzuek ulertzen dute zertan ari garen; beste batzuk, ordea, ez, eta eztabaidaren batzuk izaten ditugu. Saiatzen gara jendea ahalik eta gutxien molestatzen, eta sarritan, nahiz eta jakin leku batean basurdeak dabiltzala, batidarik ez egitea erabakitzen dugu, herritarrei traba egitea saihestearren".

Behin batida bukatutzat eman eta erretiroa jotakoan, txakurrak bildu eta botatako basurdeak menditik atera behar izaten dituzte. "Batzuetan, zakurrak biltzea ez da izaten nolanahiko lana. GPSen laguntza badaukagu, baina, hala ere, denbora asko pasa daiteke



Aztarnei jarraika topatzen dituzte baurdeak.



Eguna argitu aurretik ekiten diote lanari, eta gutxienez 16:00ak jotzen dizkiete berriz etxera bueltatzen direnerako.

erretiroa jotzen dugunetik benetan erretiratzen garenera", adierazi du Astigarragak. Denak inguratzen dituztenean, Santion daukaten txabolara jaisten dira azken lanak egitera: basurdeei tripak atera eta haiek zintzilikatzera. Etxera bueltatzerako, gutxienez 16:00ak jotzen dizkietela esan dute, eta ilunduta itzultzen diren egunik ere izaten dela.

Botatakoak, harakinari

Hala ere, Santioko txabolan garai batean baino ordu gutxiago sartzen dituzte orain. Portuk azaldu du zergatia: "Garai batean egiten genuena zen basurdea zatitu eta geure artean banatu aprobetxatzeko. Baina, horretarako, tripak atera ez ezik, larrutu ere egin behar izaten genuen, eta hurrengo egunean, puskatu eta banatu. Horrek zer suposatzen zigun? Basurde bakoitzari analisiak egin behar izaten genizkiola trikinarik zuen jakiteko, eta analisiak egitea basurdeko hogeit bat euro kostatzen zitzaigun. Atera kontuak: ehun basurde botatzen baditugu, bakoitza hogeit eurora, 2.000 euro dira analisitan bakarrik, guretzako dirutza".

Duela hiru urtetik, ordea, beste irteera bat ematen diete botatako basurdeei. "Horretan ibiltzen den harakin bati ematen dizkiogu", esan du Etxarrik. "Harakin horrek ehizatutako generoarekin egiten du lan; basurdeekin txorixoak, saltxitxoia, pateia eta abar egiten ditu, eta saldu. Guk tripak atera bakarrik egin behar izaten dizkiogu basurdeari, eta handik aurrerakoez bera arduratzen da".

Ehiza egun batean zenbat basurde bota ditzaketen galdetuta, hori aurrez kalkulatzetik ez dagola esan dute hirurek. "Bota genezake bat, bota genitzake dozenardi bat, eta batere gabe ere bueltatzen gara batzuetan", adierazi du Astigarragak. Denboraldi guztian zenbat bota ohi dituzten galdetuta, berriz, azken urteetan ehundik gorako kopuruetan dabiltzala esan dute, eta iaz, berrehun bat bota zituztela. Porturen arabera, orain dela urte batzuk kopuru horietara ailegatzea



"pentsaezina" zen: "Orain dela 30 bat urte, denboraldi guztian hogei basurde botatzea ikaragarria zen".

Orain lehen baino basurde gehiago botatzen dituzte, askoz gehiago daudelako, eta ugaritze hori mendiak zikin daudelako gertatu dela baieztatu dute. Astigarragaren hitzetan, basurdeek "paradisua" daukate inguruotan. "Denetik daukate: jana, ura eta geroz eta mendi zikinagoak; hori sekulako babesa da basuerdeentzat". Antzera mintzatu da Etxarri ere: "Jana daukate, lasaitasuna daukate eta indartsu daude. Orain ere, bi urtean hiru umealdi aterako dituzte, eta lehen umealdi bakoitzean bi edo hiru ume ateratzen bazituzten, orain ateratzen dituzte bost edo sei, amak oso indartsu daudelako". Hemen basurde argalik ez dagoela gaineratu du Astigarragak, "denak gizen-gizen-gizenak" daudela. "Zein da arazoa? Basoan bizitzeko nahikoa duten arren, nekazariei eta abeltzainei egundoko kalteak eragiten dizkietela, denetik jaten dutelako eta nahi dutena egitera ohituta daudelako", Etxarriren esanetan.

Presiopean

Basurdetan ibiltzeak zer ematen dien galdetuta, begiak zabaldu zaizkie hirurei. Portuk hartu du hitza: "Zaletasun handi bat da, bizi ez duen bati esplikatzeko zaila. Gauza da azkenaldian dezenteko presioa jasaten ari garela, eta ondorioz, zaletasuna zena obligazio moduan hartzen ari garela". Presioa alde guztietatik datorkiela esan du: "Diputazioaren aldetik, baserritarren aldetik, jendearen aldetik...". Etxarrik jarraitu du azalpenak ematen: "Kontuak ertz asko ditu. Batean gaude gu, ehiztariak, oso ospe txarra daukagunak eta herritarren artean gaizki ikusita gaudenak. Bestean, molestutzen diegun horiek guztiak: mendira oinez doazenak, korrika doazenak, bizikletan doazenak, animalistak... Gero daude baserritarrak, nekazari eta abeltzainak, basurdeek egindako kalteak jasaten dituztenak. Eta azkenik, tartean, diputazioa dago. Zer gertatzen da? Gu oso gaizki

**"DIPUTAZIOAK GURE
BEHAR HANDIA DU
BASURDE POPULAZIOA
KONTROLATUTA
IZATEKO"**

**"BASERRITAR BATZUEK
GURI BOTATZEN DIGUTE
BASURDEEK EUREI
ERAGITEN DIZKIETEN
KALTEEN ERRUA"**



ikusita gauden arren, diputazioak gure behar handia duela basurde populazioa kontrolatuta izateko, beste modurik ez baitu. Nekazari eta abeltzain handiek presio ikaragarria egiten diote basurdeek eragiten dizkieten kalteengatik, eta horiek diputazioari egiten dioten presioa, diputazioak guri, basurde gehiago akabatu ditzagun. Orduan, Portuk esan duena: gure afizioa dena, ari da bihurtzen obligazio bat, eta obligazio bihurtzen den momentuan, gaizki, zaletasun batek izan behar duen gozamen puntu hori gal dezakeelako".

Horrez gain, zenbait baserritarrek eurekiko duten jarrera gaitzetsi du Astigarragak: "Batzuekin ondo konpontzen gara, asko eskertzen digute egiten dugun ahalegina; baina beste batzuek...". "Jartzen gaituzte guk kulpak izango bagenitu bezala, nahikoa saiatuko ez bagina bezala", adierazi du Portuk. "Kexatzen dira basurdeek sortzen dizkieten gastuengatik. Basurdeek belardietan muturkak egiten dituztenez, belar bolak egiterakoan lurra sartzen zaie bolen barrura, eta ulertzekoa da haserrea, baina guri edozein asteburutan apo bat toka dakiguke, kolpe batean bi edo hiru zakur zulatu, eta al baitariarenera larrialdian joanda, 1.500-2.000 euro inork ez dizkigu barkatzen. Iaz 6.000 euro gastatu genituen, eta aurten ere badoaz batzuk. Hori, kontatu gabe akabatzen diren zakurrak". "Eta salbatutako batzuk ere ikusi egin behar nola gelditzen diren: seko izorratuta", esan du Etxarrik.

Apoa basurde arrari deitzen diote, eta letaginak izaten dituzte. Txakurrek eta basurdeak parez pare topo egiten dutenean, borroka egiten dute. Basurde emeekin horrenbesteko arriskurik ez dela egoten esan dute ehiztariek, baina arrak, segundo batean sekulako sarraskia egiteko kapaz direla. Letaginekin zulatzen dituzte zakurrak, eta

odolusteko bidean jarri. Urtero galdu ohi dituzte zazpi edo zortzi txakur.

Porturen esanetan, gauza horiek ehiza garaian gertatzea onartuta daukate, "baina denboralditik kanpo ere sarritan deitzen digute zakurrak hartu eta basurdeak uxatzera joateko". Horrela dabiltzala zerbait gertatzen bada, "denek eskuak garbitzen dituzte, eta kalteak guk ordaindu behar izaten ditugu", jarraitu du Astigarragak. "Eta guk ordaintzen ditugu basurdeek baserritarrei eragiten dizkieten kalteak ere, horretarako propio kontratatuta daukagun aseguru baten bidez". Berriro Portuk hartu du hitza: "Nolabait esatearren, gure zaletasuna praktikatzeko ordaindu behar dugun prezioa da, eta asegurua kontratazea 2.000 eurotik gora kostatu zaigu aurtien ere". Ehiztariak ordaintzen dute basurdeek eragindako kalteen parte bat, eta diputazioak ordaintzen du bestea. "Dirua zeini iristen zaion eta zeini ez, hori ez dakit, baina hor guk ez daukagu zerikusirik". Etxarrik zehaztu du azken puntu hori: "Kalteak neurtzeko baremo batzuk finkatuta daude, baina baserritar txikiak inoiz ez dira horietan sartzen, eta kalte ordainak jasotzen dituzten bakarrak handiak izaten dira".

Babesa eta erraztasunak

Hori guztia ehiztariei presio egiteko modua dela gaitzetsi du Astigarragak: "Iaz 100 basurde bota bagenituen, aurtien 150 botatzea exijitzen digute". Portuk azaldu du nola egiten duten hori: "Botatzen dugun animalia bakoitzari prezinto bat jarri behar izaten diogu, eta prezinto horiek diputazioak ematen dizkigu denboraldiaren hasieran. Bada, aurtien 100 botatzen baditugu, datorren urtean 140 prezinto emango dizkigute, eta kopuru horretara iristera bultzatzen gaituzte".

Honetan guztian arazo bat ikusten du Etxarrik: "Gauzak bulegoetan erabakitzen direla, eta mendian gabiltzanon hitzak ez duela ezertarako balio". Zentzu horretan, garbi mintzatu da Portu: "Gu urtebetean geldirik egongo bagina, ez dago imajinatzerik zer geratuko litzatekeen. Kalkulatu: lehengo urtean 200 bat basurde bota genituen, erdiak emeak, eta bakoitzak seina ume atera izan balitu... Eta horietaz aparte, mendian gelditzen direnak. Baserritarrena gutxienekoa litzateke; hasten direnean basurdeak kalera jaisten eta istripuak sortzen, zoritxar handiak gerta litezke".

Horiek horrela, babesa eskatu dute, "basurdetara ateratzen garenean, gure zaletasuna praktikatzearaz gain, zerbitzu publiko bat ematen ari garelako". Eta erraztasunak, segida kolokan ikusten dutelako. "Arnak erabiltzeko baimenak eta lizentziak lortzea ikaragarri zaila jarrita dago", Astigarragaren esanetan. "Hemendik aurrera ateratzen diren ehiztariak berezko sen eta gogo handia ekarri beharko dituzte, dena kontra baitute", bukatu du Etxarrik. ■



Botatzen duten basurde bakoitzaren odol lagin bat diputazioari helarazi behar izaten diote.

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako lagailuek-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.

FOTOGRAFIA
ZABERAK

ZABERAK
ZABERAK

BARRUTIA
ZABERAK

www.bertako.eus



Berdintasun diagnostikoaz

2019an Orioko emakumeon* beharren diagnostikoa osatu genuen ahalduztze eskola martxan jartzeko abiapuntu moduan, eta diagnostiko hartatik atera genituen ondorioak kezagarriak izan ziren. Emakume guztiek adierazi zuten intentsitate maila desberdinetako indarkeria matxista egoerak bizi zituztela, eta ikusi genuen adina, sexu orientazioa, aniztasun kulturala eta aniztasun funtzionala zaurgarritasun ardatz zirela, eta emakume identitatearekin batera, indarkeria jasateko aukerak biderkatu egiten zirela.

Bi urte igaro dira ordutik. Bi urteotan, Orioko Emakumeon* Ahalduztze Eskola abiarazi dugu eta, pandemia tartean egonik ere, diagnosiak ikusarazitako behar, arazo eta

gabeziei erantzuten saiatu gara. Hainbat lan ildo eta ekimen jarri ditugu martxan, eta proiektua handitu egin da. Prozesu horretan, berdintasunerako beharrak identifikatzen joan gara, eta 2021ean, beste diagnostiko bat osatu dugu udaletik abiatuta: *Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. diagnostikoa* –biak dituzue ikusgai udalaren webgunean–.

**GALDETEGIA BETE
DUTEN MAKUMEEN
%72K ETA GIZONEN
%57K DIOTE EZ GARELA
BERDINTASUNEAN BIZI**

Diagnostikoaren lanketan, politikariek, udal langileek eta herritarrek hartu dute parte, galdetegi, bilera eta elkarrizketa bidez, eta herrian eta udalean berdintasun alorreko ahulguneak eta indarguneak identifikatzea eta horiei aurre egiteko ekintzak pentsatzea lortu nahi izan da. Diagnostikoak *Berdintasunerako II. Udal Plana* egiteko oinarriak jarri ditu, udalak datorren urtean diseinatzeko asmoa duena.

Diagnostikorako galdetegia bete duten emakumeen % 72k eta gizonen % 57k diote ez garela berdintasunean bizi. Adibidetzat, indarkeria matxista adierazpen ezberdinak eman dituzte: koakzioa eta manipulazioa, ukituak, gutxiespenak, sexu bereko bikotea ez onartzea, hitzezko

HAUXE BAI JENEROAI!



indarkeria, jazarpen sexuala, komentario matxistak, lodifobia, jazarpen psikologikoa, jendaurrean ridikulizatzea eta abar. Bistan da 2019tik 2021era herrian genero berdintasunaren inguruko dinamikak ez direla gehiegi aldatu. Horrez gain, udal barruko dinamikak aztertu dira. Badago zer hobetu.

Aurtengo diagnostikoak ekarri duen onuretako bat da udalean Berdintasun Batzordea osatu dela eta talde-motor horrek biltzen, hausnartzen eta hobekuntzak egiten jarraitzeko asmoa duela. Batzorde hori izango da 2022an garatuko den plana aurrera eramateko arduraduna, eta herritarrengandik jasotako proposamenak ere kontuan izango dira.

Aldaketarako gogoia eta ilusioa badago, bai udalean, eta baita

herritarren artean ere. Gure etorkizuna askeago bizitzeko herri anitza eraiki nahi dugu, eta argi daukagu aldaketarako bidea guztion ardura dela; kontzientziario lanak egiten jarraitu behar dugu, eztabaidatzen, denok ulertu behar dugu feminismoa berdintasuna dela eta berdintasunaren gakoa dela aukera gutxiago dituztenei edo zaurgarriagoak direnei bultzada handiagoa ematea.

Berdintasuna ez da urte bakarrean lortzen. Prozesu bat da, eta prozesu horretan hainbat mugarri jartzen ari gara. 2019ko diagnosia mugarri bat izan zen, 2021ean egin dena beste bat, 2022an egingo den Berdintasun Plana beste bat izango da, eta horrela jarraituko dugu berdintasunean oinarritutako herri anitz bat lortu arte. ■■■

NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

Bakarra

Salatxo tabernaren aurrean aspaldiko ezagun batekin egin dut topo. "Zer moduz gurasoak?", galdetu dit. Pena handia sentitu du gure aitaren heriotzaren berri eman diodanean, eta berriketan jarraitu dugu minutu batzuz. Gero, Anibarko Portu aldera paseoa jarraitu dudanean, hunkitu egin naiz.

Akordatu naiz nola duela pare bat hilabete kalean topo egin nuen lanetik ezagutzen dudana sasoiko gizon batekin. Nik hitzik egin aurretik esan zidan: "Jexux hire aita al hunan? Orainxe enteratu. Asko botatzen dinagu faltan Atraskuan [Azkoitiko taberna bat]".

Adin, jatorri eta pentsaera askotako pertsonengana gerturatzeko gaitasuna zuen gure aitak; beti harritu izan nau horrek. Azkoitian, etxe ondoko supermerkatu kanpoan eskean egoten den H.-rekin akordatu naiz orduan. Eta haren negar ozenarekin, beilatokian. "Era mi padre, mi hermano", esaten zuen. Horrek erantzun katea ekarri zuen: "Baiba, dirua ematen zion-eta egunero" (batek); "hori bakarrik ez, kontu-kontari egoten ziren egunero elkarrekin berriketan" (gure amak); "zuen aitak pertsona bezala tratatu zuen, ea nork esan dezakeen gauza bera" (B.-k, begiak busti-busti).

Halakoxea zen ba, gure aita. Munduan ez dakit, baina gure bihotzetan, bakarra. ■■■

COVID PASAPORTERIK GABE ERE
BIZITZA SOZIALA EGIN LITEKEEN
TOKI BAKARRERA

ALEGIA, EROSKETETARA

NAHI BADUZU ETORRI

ORIOTAR

bat gehiago



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



ORIOKO HERRI IKASTOLA

"Euskarak denon elkarlana behar du"

ARGITXO EUSKARAREN EGUNEKO GONBIDATUA

Kaixo Argitxo. Aurten ere, urtero bezala, Euskararen Egunean gure ikastolara etorri zara bisitan. Euskaraz hitz egiten entzun al dituzu ikasleak?

Bai. Poz handia ematen du ikusteak gela barruan nola aritzen zareten euskaraz. Parkean izaten dira komeriak!

Bai? Zergatik?

Parkean arreata jartzen dudanean, guraso asko entzuten ditut beraien artean gaztelaniaz hizketan. Euskeraz dakitenak, gainera. Horrek pena izugarria ematen dit.

Eta umeak?

Gehiengoa euskaraz jarduten zarete, baina bideojokoetan edo telebista piztean, ikusten eta entzuten dituzuenak gaztelera izaten dira askotan eta, horrek, zuek ere tarteka gaztelaniaz egitera bultzatzen zaituzte.

Zure kriseilua itzaltzeko arriskua dago orduan?

Horrelakoak entzuten ditudanean, ez du argi gehiegirik egiten egia esan. Baina, zorionez, euskara asko entzuten da zuen herrian, eta kriseilua ez da itzaltzen.

Gu konpromiso batzuk hartzeko prest gaude gure ikastolan. Zer egin dezakegu?

Orain arte egiten jardun zareten bezala, garrantzitsua da euskara eta euskal kultura maitatzea, baina maitatzetik erabilerara eta



kalitatera ere eman behar da pausoa, Oriok arnasmune izaten jarrai dezan.

Orduan, ikastolan bakarrik ez, herritarrak ere saiatu behar dira hori lortzen, ezta?

Noski, denon lana da garrantzitsua. Ostalariak, dendariak, zerbitzuak, udala... bakoitzak bere eremuan aletxoa jartzen badu, euskaraz bizi ahal izateko herria izaten jarraituko du Oriok. Horretarako, denon elkarlana beharrezkoa da.

Azkenaldian gure herriko euskaltegian askok eman dute izena. Zer esango zenieke euskara ikastera animatu diren horiei?

Euskara beharrezkoa dutela sentitzeagatik zoriondu nahi nituzke, eta lotsarik gabe eta hankarik sartzeko beldurrik gabe, ingurukoekin euskaraz jarduteko esango nieke. Eta garrantzitsua, saiatzen ari diren horiei lehen hitza euskaraz egin diezaietela gainontzekoek.



HAIZEA GOZATEGI

Umorea, umore

Umorea, zer da umorea? Besteengan irribarrea edo barrea eragiteko jendearen gaitasuna edo kalitatea da, izan hitzez, keinuz edo beste moduren batera. Baina azken urteetan, umorea aldatu egin dela esan genezake, eta orain modu kritikoagoan begiratzen zaio. Zer esan nahi eta behar den gehiago pentsarazten da, bai komikoei baita gure inguruan komedia egiten dutenei ere. Urte batzuk atzera eginda, ez zait iruditzen horrenbeste kritika negatibo egiten zitzaienik.

Agian, beharrezkoa da gaur egungo begiekin begiratzea, esaterako, askotan intentzio txarrekin erabiltzen delako kolektibo minorizatuekiko egiten den umorea. Esan daiteke, denborarekin, gizarte talde horiek jendartearen errespetu eta errekonozimendu handiagoa izatea lortu dutela. Baina kontu horiek asko esajeratzen dituen jendea ere badago, umorearen alde negatiboa ez baita horren iluna, umoreari zentzua hartzen jakinez gero.

Nire iritziz, umoreak askea izan beharko luke, hori bai, neurri txiki baina sendo batekin: inori erasotzen ez dion umorea izatea. Beti egongo dira minduta sentituko direnak, baina beraiek ere jakin beharko dute umorea dela. Horren guztiaren gainetik, eta polemikak alde batera utzita, nik argi daukat umorerik onena norberaren buruari barre egiten jakitean lortzen dela. Izan ere, zure buruari barre egiten diozunean hartzen diozu umoreari zentzua. Gaurko drama, denbora aurrera joan ahala, umore bihurtzen da. ■

Eugenio Azkue: margolari erromantiko oriotarra



INAKI ITURAIN IITURAIN@GMAIL.COM

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Aurtengo irailaren 6an 500 urte beteko dira Juan Sebastian Elkano itsasgizon getariarrak lehenengo mundu-birari bukaera eman zionetik Sevillako portuan, handik bertatik abiatu eta hiru urtera. Elkanoren orduko irudirik ez dago; denak geroztikakoak dira. Egin diren haren margolanetatik ezagunenetako bat Gipuzkoako Diputazioan dago, eta oriotar batek egina da: Eugenio Azkue margolariak. Bada kasualitatea: Azkue Elkanoren mundu-biraren 300. urteurrena bete zen egun berean jaio zen: 1822ko irailaren 6an. Aurten biak ospatu litezke irailaren 6an: Elkanoren itsas abentura izugarriaren 500. urteurrena, eta marinelaren koadroa margotu zuen pintore oriotar bikainaren jaiotzaren 200garrena.

Oso izen oriotarra zuen Eugenio Azkuek. XX. mendean Orion izan ziren beste bi gizon izen hori zutenak: Conservas Azkue fabrikaren nagusia eta Reina Maria baporearen patroia eta armadorea; eta izen horixe du haren seme batek ere.

Margolari oriotarraren Orioko artxiboko jaiotze-agiriak dioenez, Eugenio Antonio Maria Azkue

Goikoetxea 1822ko irailaren 6an jaio zen Orion. Jaioterrian eman zituen lehen urrats artistikoak, autodidakta gisa, 1845ean Donostiara joan zen arte. Azkue 1858an ezkondu zen Tolosako Santa Maria parrokian Rosa Mujika Iparragirre gazte hernaniarrarekin. Donostian hil zen, 1890ean.

Ilbilde luze eta oparoa izan zuen. Madrileko San Fernando Arte Ederretako Akademian estudiatu zuen, Gipuzkoako Diputazioak emandako beka baten bidez. Gero, Erroman eta Parisen jarraitu zituen ikasketak, eta hasiera eman zion nazioarteko ibilbideari, haren ostean Gipuzkoako beste artista batzuek ere jarraitu zutena. Pinturan adituek Azkue jotzen dute estetika neoklasikoaren eta erromantikoaren katebegitzat eta XIX. mendeko Gipuzkoako lehenengo pintoretzat. Nolanahi ere, Euskal Herriak eman duen margolari emankorrenetako bat izan zen.

**EUSKAL HERRIAK
EMAN DUEN
MARGOLARI
EMANKORRENETAKO
BAT IZAN ZEN AZKUE**

Arteari bikaintasuna eman zioten pintoreen belaunaldiaren abiapuntua.

XIX. mendean, Donostia Isabel II.aren eta Madrilgo Gortearen uda-toki bihurtu zen, eta horrek aristokraziarekin lotutako artistak ere ekarri zituen. Haien artean zegoen, Federico Madrazo margolari erromantiko handia eta Eskultura, Pintura eta Grabatuko Goi Eskolako irakaslea. Artista Eugenio Azkue gaztearekin batera ibili zen Gipuzkoako herriak ezagutzen.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Azkueri emandako laguntzagatik, hark, esker ona adierazteko, bi koadro handi oparitu zizkion probintziari, Diputazioko bilkura-aretoan jarri zirenak.

Azkue Erroman eta Parisen ere bizi izan zen. Prestakuntza-garaia amaitu eta nazioarteko bidaia bat egin ondoren, artista Gipuzkoara itzuli zen eta Tolosan kokatu, 34 urte zituela enkargu garrantzitsu bat jaso baitzuen: Santa Maria parrokia-eliza apaintzea.

**Tolosako parrokiako
margolanak**

Tolosakoa da bere lanik aipagarrienetako bat: hango Santa Maria elizan 1956an



Juan Sebastian Elkano getariarra. Tu primum circulum dedistime (Hi izan haiz lehena niri bira osoa ematen). 1851ko margolana; San Telmo museoan dago.

egindakoa; baina buruko minen bat ere eragin zion. Sinatutako kontratuak amaigabeko auziak sortu zituen artistaren eta Udalaren artean, eta horrek ordainketak atzeratzea ekarri zuen.

Elizako balio artistiko handiko artelan haien zaharberritze-proiektu batek Azkueren horma-pinturetako bi berreskuratu zituen 2020an. Proiektua Aldundiak, Udalak eta parrokiak finantzatu zuten. Denboraren joanak, hainbat sutek, eguraldi txarrak eta zoritxarreko esku-hartzeek

arrisku larrian jarri zuten pintura muralen kontserbazioa. Zaharberritze talde batek jatorrizko argia itzuli zien multzoa osatzen duten sei lanetatik biri: *Emakume adulteroa*, *Kristorekin aurrez aurre* eta *Pizkundea*, tenpluaren eskuineko habeartean daudenak.

Montserrat Fornells historialariak zaharberritzearen beharra aldarrikatu zuen: "Euskal Herrian horrelako multzo artistiko gutxi geratzen dira".

Carmen Martin, zaharberritzearen arduraduna: "Ez dago zalantzarik pinturen balio artistiko eta historikoaz. Zaindu beharreko multzo bikaina da. Eszenen konposizioa ezin hobeto eginda dago. Azkueren lanaren xehetasuna nabarmenduko nuke. Tamaina hain handiko pinturak izateko, harrigarria da eszenako xehetasun bakoitza landuta nola dagoen".

Asko eta ondo pintatu zuen Azkuek. Dekoratzailerik ere fina izan zen. Pintura erlijiosoa landu zuen eta, batez ere,



Iru-rak bat, Hiru emakume: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren batasuna. 1835eko margolana; Azkoitiko Insausti jauregian dago.



Gipuzkoako armarrak, oleoz margotua 1854an; Gipuzkoako Foru Aldundian dago.

pertsonaia historikoen erretratuak. Euskal Herriko hainbat elizatan daude Azkueren lanak. Gipuzkoako zenbaitetan dekorazioa ere landu zuen. Nabarmentzekoak dira Donostiako Santa Mariako sakristiako mihiseak.

Orioko elizan ere hainbat koadro dago Eugenio Azkuerenak, Loli Erkiziaren *Orio, entre la ría y el mar* liburuan (1970) agertzen denez: *Monumento Jueves Santo* (1858), *Dos Sagrados Corazones* (1868), *Padre Eterno* (1885) eta *Santa Barbara*.

Donostiako erakusketa

2013an pintura-erakusketa egon zen Kutxaren Donostiako Bulebarreko galerian: XIX. mendeko Gipuzkoako pintore erromantikoak. Han, euskal pinturaren aitzindaritzat jotzen diren zazpi margolari gipuzkoarren lanak erakutsi

zituzten: Eugenio Azkue, Juan Brocheton, Antonio Maria Lekuona, Eugenio Arruti, Isidro Gil Gabilondo, Jose Etxenagusia eta Pedro Gassis. Haien 69 mihise eta 13 marrazki bildu zituen erakusketak. Han, oriotarraren hainbat margolan egon ziren ikusgai.

Cristina Beloki Kutxako Boulevard aretoko arduradunak haxe esan zuen erakusketaren aurkezpenean: "Guztiak 1820 eta 1850 artean jaio ziren, eta erromantizismoaren berezko gaiak garatu zituzten, hala nola maitasuna, heriotza edo Lord Byron edo Victor Hugo bezalako idazleen kontakizunetako gaiak, baita bertako historiarekin eta historia sakratuarekin lotutako paisaiak eta gaiak ere. Oso garai zaila bizi izan zuten, gerra karlistengatik. Ez zuten

merezitako errekonozimendua jaso, geroago etorri zirenek, hala nola Ignacio Zuloagak, Aurelio Artetak edo Ascensio Martiarenak, eklipsatu egin zituztelako".

Montserrat Fornells erakusketaren komisarioak, haxe: "Euskal pinturaren jatorria ezagutzen hasteko abiapuntua izango da, Euskal Herrian pintura praktikatzeko hasi zirenen lanak daudelako, aitzindarienak". Fornellsek artista haien lanen kalitate ukazina azpimarratu zuen.

Pertsonaia historikoen erretratuak

Nicolas Soraluzek bultzatuta, 1850 eta 1860ko hamarkadetan Gipuzkoako pertsonaia historiko askoren erretratuak egin ziren. Haietako asko, Eugenio Azkuek: Loiolako Inazio (1849), Juan Sebastian Elkano (1851), Kosme Damian



Tolosako Santa Maria parrokiako zaharbertitze lanak.



Txurruka (1859), Antonio Okendo eta Migel Lopez de Legazpi.

Legazpi almirantearen erretratuak historia bitxia du. Nikolas Soraluzek, Zumarragakoa izanik, interes handia zuen Legazpiren koadro bat eskuratzeko. Madrilera eskatuta, erantzun zioten han ez zeukatela ezer. Legazpi Filipinetako hiriburu Manilako alkate izan zen, eta Soraluzek bazekien han bazirela Legazpiren erretratu batzuk. Diputazioak diruz lagunduta, Manilara haietako baten eskaera egin zuen 1862an. Koadroa Cadizera iritsi zen 1863an. Soraluzeren asmoa zen Gipuzkoako pertsonaia historikoen erretratuekin galeria bat sortu eta orduan Tolosan zegoen Diputazioan jartzea. Gaur egun Donostiako Gipuzkoa Plazako Diputazioan daude margolanak, tartean

Eugenio Azkueren batzuk; Legazpirena, hala ere, San Telmo museoan dago.

Zumarragako Udalak Legazpiren margolanaren kopia bat egin zezan eskatu zion Azkueri. Azkuek bat ez, bi egin zituen. Haietako bat behar bezala hartu zuten Zumarragako herritarrek: txistu, danbolin eta dantzarekin, etxaferoka, eta herriko plazan jendeari ardoa banatuz. Arraunlariei baino lehenago egin zitzaion, beraz, alirona Orioko pintorearen lanari, 1863ko maiatzaren 3an, baina Zumarragan.

Orioko pintoreak

Antzinako gizakiek Altxerriko kobazuloko arroketan animalien irudiak egin zituztenetik hona, ez dugu izan Orioko pintore askoren berri, baina batzuk izan dira. Gehienak ez dira izen

handikoen zerrendan agertuko; baina lan eder askoak ere egin dituzte. Baten bat ahaztuta uzteko arriskua hartuta, aspaldi honetan gure artean (izan) diren batzuk aipatuko ditugu: Gerra aurretik Orion bizi izan zen Jesus Apellaniz gasteiztarra, Jose Ramon Salsamendi, Daniel Bastos, Juan Jose Loidi, Fernando Ortiz de Guinea, Luis Cisneros Vís, Begoña Zaldua, Antton Esnal, Mari Jose Iparragirre, Tomas Esnaola, Nekane Larrañaga, Iñaki Arrillaga, Mari Jose eta Joseba Lacadena anai-arrebak, Santos Uranga, Koro Arratibel, Iñigo Manterola, Uxoa Zulaika, Zorione Mendez eta Elene Tamayo. Orain dela gutxi arte, urte batzuetan pintura-tailer bat izan zuen herrian Mari Jose Iparragirrek, haur eta gaztetxoei pintatzen erakusteko. ■

EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,
BISITA GIDATUAK...
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.
Parte hartu nahi duzu?



Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Errelementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio taller batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

Bisitek

Bisita librea, gidatua, audiodigidekin, taldeentzat, fastetxeentzat egokitua, enpresentzat, familientzat...





Antzinako ogibideak



Gaitzeaz dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinek: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Biziabe tailerrak, erronka erreaktiboak.



Espazioen alokairua

Museoak espazioak erabileraz antzartzeko alokatzen dituzte: dagoz ibilbideak, ekitaldiak, azokak, erakusketak, ikusentzumenak, telebista azokak eta abar. Leku partekagarria, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erremintako Museoa
Elgoibar, Gipuzkoa
www.museoa.eus
museoa@museoa.eus



Euskaraz Gazte: herri literatura giltzarri

Orioko Udalak urtero antolatzen duen Euskaraz Gazte literatur lehiaketako sariak banatu berri dituzte, eta gauza bitxia gertatu da: olerkietan, accesit bana lortu dute Josu Galdos eta Maxe Zinkunegi aita-alabek. Lehiaketa barrutik ezagutzeko, eurengana eta Jabier Zabaleta Euskara teknikariarengana jo dugu.

Testua: **Aritz Pardina.**
Argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Karkararen zenbaki honek badu berezitasun bat: 2021eko Euskaraz Gazte literatur lehiaketan saritutako lanak biltzen dituela. Aurten ere Aiako eta Orioko sortzaileen uztaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, beraz. Ibilbide luzea du lehiaketak, 28. edizioa izan da bukatu berri dena, eta nabarmentzekoa aldizkari honek haren sorreran izan zuen inplikazioa. Izan ere, Karkara 1989an sortu zuten eta, handik bi urtera-edo, izen bereko literatur lehiaketa.

Garai hartan, euskara gazteen %30ek bakarrik erabiltzen zutela eta, Euskaraz Gazte deituriko kanpaina bat abiatu zuen udalak, eta haren baitan, Karkarak sortutako lehiaketa bere gain hartu eta gaurdaino eutsi dion deiturarekin bataiatu zuen. Hori bai, lehiaketako lan sarituen bilduma Aiako eta Orioko etxe guztietara iristen bada, bere hastapenetan Karkarak sortu zuelako da.

Herritarren gaitasun literarioaren erakusleiho bakarrenetakoa da Euskaraz Gazte, eta 1993tik, makina bat lan saritu dituzte. Azken edizioan, gainera, izan da ohiz kanpoko gertaera bat: Josu Galdos eta Maxe Zinkunegi aita-alabek olerkigintzan accesit bana irabazi dutela, hain zuzen. Hori aitzakia hartuta, eurengana jo du Karkarak, eta lehiaketaz beraz, idazteko zaletasunaz, sortzeko gaitasunaz eta euskaraz jardun dute, besteak beste.

Literatura sustraituz

Aitak eta alabak alor berdineko sari bana ateratzea berezia izan bide da; hala berretsi dute elkarriketatuek ere: "Bai, oso pozik gaude, oso polita izan da". Galdosek ez du irabazten duen lehen saria, zatikatuta bada ere, zenbaitetan atera baitio etekina Euskaraz



Gazteri. Eta hark azaldu duenez, alabak ere gertukoa zuen sari banaketa ekitaldia, "ni saritu ninduten urteren batean, berak biolina jo baitzuen". Oraingoan, ordea, beste era batera partekatu dute oholtza.

Biak ala biak goiz hasi ziren idazten. Galdosek baieztatu du berea prozesua naturala izan zela: "Hamasei urterekin-edo sentitu nuen barnean nuena ateratzeko beharra, eta horregatik hasi nintzen idazten. Ez dut utzi orain arte". Zinkunegik, berriz, etxean zuen eredua, eta horrek lagundu zion berezkoa zuena ateratzen: "Irakurtzea asko gustatzen zait, eta idazten ere txikitan hasi nintzen. Batak ekarri zuen bestea. Gainera, aita ikusten nuen idazten, eta horrek ere lagundu zidan".

Idazketa berezko duten bezalaxe, biek uste dute idatzitakoa argitaratzeak ematen diola zentzua jarduerari, eta bide horretatik, lehiaketa literarioen balioa nabarmendu dute, idazle gazteei bultzada emateko duten gaitasuna. Esaterako, Zinkunegik ez du aurtengo lehen saria; Zarauzko Salvatore Mitxelena lehiaketako E mailako bigarren saria atera du ipuingintzan. Bere ustez, horrelakoek "norbere buruarekiko konfiantza ematen dute, zentzu guztietan". Galdosen aburuz, "idazten duzuna beste norbaitengana iristeko aukera polita dira lehiaketa hauek", eta, hori, norbere maila edozein dela ere, garrantzitsua da.

Hain zuzen, elkarrizketatuek eurek ere profil ezberdinak dituzte: aitzak idazle ibilbide luzeagoa duen bitartean, alaba lanak argitaratzen hasi berria da. Dikotomia horren baitan, baina, asko ikasten dute biek ala biek. Galdos: "Maxek harritu egiten nau. 'Nondik atera du hau?', galdetzen diot maiz neure buruari. Ikusten

"IDAZTEN DUZUNA BESTE NORBAITENGANA IRISTEKO AUKERA POLITA IZATEN DIRA LEHIAKETA HAUEK"

dut oso idazkera ezberdinak ditugula, baina baduela gaitasuna. Hortaz, noski beregandik ikasten dudala, asko, beste edozein autore irakurtzen ikasten dudana bezala".

Alabak ere bere ikasketa prozesuan aitzak izan duen garrantzia jaso nahi izan du: "Bere idatziak irakurtzen ditudanean, agian txikitatik berekin nagoelako edo, oso nireak bezala sentitzen ditut. Sarritan barruan dudana hitzak jarri dizkio, bera konturatu da nire barnean zegoenaz. Gauza berriak ikusarazten laguntzen dit".

Etorkizunean idazten jarraituko dutela argi dute biek, baita euskaraz idatziko dutela ere. Galdosi, esaterako, naturala zaio euskaraz egitea. Erdaraz aritzea ez du inoiz baztertu, baina ez du bere baitan planteatu: "Niretzat euskaraz idaztea errazena da. Euskarak erraztasunak ematen dizkit nahi dudana plazaratzeko". Zinkunegik, berriz, euskarazko hitzen "hiztegietatik kanpoko esanahia" azpimarratu du: "Iruditzen zait euskaraz aritzea izaera kontua ere badela".

"HERRIAN SORMENA DUEN JENDEA IZATEA ALTXORRA DA"

JABIER ZABALETA EUSKARA TEKNIKARIA

28 urte hauetan, zer bilakaera izan du lehiaketak?

Etapak izan ditu. Izan ditu parte-hartze handiko etapak, eta baita baxuagokoak ere. Orain, berriz, egonkortuta dago. 25-30 lan jaso ditugu azken urteotan, eta uste dut tamaina polita dela Aia eta Oriorentzat. Noski, gustatuko litzaiguke lan gehiago jasotzea, baina hori, oraino, ez da errealista. Nabarmenezkoa, bestalde, ez da lanen kantitatea soilik; jasotzen ditugun lanen kalitatean ere jarriko nuke azpimarra. Urtero lan batzuk ez argitaratzeko penaz gelditzen gara, baina aukeratzeak horixe dakar.

Gaurkotasuna da lehiaketaren irizpideetako bat. Nola moldatzen dira idazleak egungo auzietara?

Aktualitateak beti markatzen ditu idatziak. Pandemia garaian, esaterako, gaia irten egiten da. Beste gertakari batzuk ere, Xabier Lizasoren Do Re Ni ikerketa kasu, azaldu izan dira saritutako ipuin eta olerkietan. Herrian gertatzen diren gauzen isla ere badela esango nuke, herriko aktualitatearen kronika moduko bat. Izaten dira gaurkotasunetik erabat kanpokoak ere, eta hori ere zilegi da, noski. Oro har, edonorentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak azaltzen direla esango nuke.

Zein da lehiaketaren helburu nagusia?

Oroz gain, herritarren idazteko zaletasuna suspertzea. Beste udaletan egiten dira lehiaketa orokorrak, idazten duen edonork parte hartzeko modukoak, Zumaiaiko Julene Azpeltia lehiaketa,



adibidez. Guk formatu herrikoiagoa bultzatu nahi izan dugu, ulertzen dugulako parte hartzea errazten duela. Azken batean, herrian sormena duen jendea izatea altxorra da, eta guk nahi duguna da herrian sortzaile jendea egotea, horrek asko aberasten baikaitu.

Gero eta literatura gutxiago irakurtzen dela esaten da. Horrek eragin dezake jasotzen dituzuen lanetan?

Nik ez dut pertzepzio hori. Egia da baliabide ugari dituztela egungo gazteak, eta irakurketaren kontua lausoagoa-edo bilakatu dela, nolabait esatearren. Jende askok esaten du literatura galtzen ari dela eta abar, baina nik ezin dezaket hori esan. Ikusten dut kalitatez gero eta lan hobeak jasotzen ditugula. Bestalde, nago egungo gazteak prestatuago

Etorkizunean sari gehiago jasotzen ikusiko ditugun, denborak argituko du. Bitartean, zalantzarik ez, gustukoen zaiena egiten jarraituko dute aita-alabek. Eta Zinkunegik jende gazteari deialdia egiteko baliatu du aukera: "Lehen pentsatzen nuen nire burua egonkortu arte itxaron beharko nuela idazten nuena partekatzeke, baina hori ez da horrela. Norberak nahi duena bere ideiak bistaratzea bada, gehiegi pentsatu gabe pausoa ematea da onena, nahiz eta goizegi dela iruditu".

Ezbairik gabe, Euskaraz Gaztek aurrera jarraituko badu, jende gaztearen ekarpenak ezinbestekoak izango ditu, eta geroari begira, funtsezkoa izango da Aiako eta Orioko idazle gazteek Zinkunegik eskatutako pausoa ematea. Hala ere, horretaz inork hitz egin badezake, hori Jabier Zabaleta da, besteak beste, lehen ediziotik epaimahaiko kide dena. Euskaraz Gazteren nondik norakoak ulertzeko hainbat gako eman ditu, eta lehiaketaren egungo egoeraz eta etorkizunaz espero daitekeenaz jardun du. ■■■

"IDATZITAKOA KAXOIAN GORDETZEN DUTEN GAZTE HORIEK PAUSOA EMATERA ANIMATU NAHIKO NITUZKE"

daudela euskarari dagokionez: nik 25 urterekin gaizki idazten nuen, hizkuntza aldetik motz nengibilen, eta ondoren egin behar izan nuen bidea. Egungo gazteen abiapuntua askoz hobea da. Agian gure garaian liburuek gure eguneroko bizitzan pisu espezifiko handiagoa zutela, baina, beste aldetik, gaur egungo gazteen euskara maila hobea da. Nolabait, bataren falta bestearen garapenak orekatu du.

Euskara eta gazteak al dira lehiaketaren funtsa?

Zenbaitetan izan dugu izena aldatzearen ideia, baina 28 urtetan horrela ezagutu den lehiaketari izena aldatzea kosta egiten da. Neurri batean, ondo dago nondik datorren gogoraztea. Eta, gainera, badu zera hori: euskara eta gazteak. Batetik, euskal sorkuntza nahi dugu bultzatu; bestetik, gazteei begira, dei funtzioa egiten duela uste dut.

Egongo da parte hartzaileen artean 'gaztea'-ren prototipoan sartzen ez denik ere, ezta?

Baina horrek ez du jendea atzera bota behar. Oinarrietan jartzen du 16 urtetik gorako edonorentzat dela. Hortaz, ez da bereziki gazteentzat egiten den zerbait, baina gazteen presentzia bilatzen dugu, bai.

Literaturak zer onura ekar dakioke euskararen erabilerari?

Euskarazko sorkuntza —kultur sorkuntza, oro har—, hizkuntza bat elikatzeke nahitaezkoa dela uste dut. Literatura hor barruan sartuta, erraza da lotura ikustea. Guk hizkuntza ez dugu aginduak emateko edo gauza konkretuetarako soilik erabiltzen. Hizkuntza da gauzeekin eta munduarekin harremanetan jartzeko modua.

Beraz, kulturarekin datozen erreferenteak, gure iruditeria, guzti hori hizkuntzaren bitartez sortzen da. Hori zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta aberatsagoa izango da gure mundua ere. Gu horrela osatzen gara.

Eta, nola eskala handian, hala herri mailan ere...

Bai, hori da. Herriko imajinarioak, irudiak, istorioak... guzti hori elikatzen du kultur lehiaketa honek; hazten ari gara eta hori bultzatzen. Lan hauek irakurtzeak, erreferentziak, hizkuntza erregistro berriak... gauza asko sortzen ditu.

Lehiaketari zer etorkizun ikusten diozu?

Ni oso gustura nago orain arte egindako lanarekin. Esango nuke, gainera, une gozo batean gaudela; egonkortuta gaude. Urtero jende berriak hartzen du parte eta, nahiz eta masiboa ez izan, pozik gaude horrekin. Beste aldetik, badaude ondo idazten duten eta ia urtero sariren bat ateratzen duten idazleak, eta horien presentzia ere mantendu nahiko genuke. Egia da bien arteko oreka zaila dela. Dena dela, gustatuko litzaidake jende gehiagok parte hartzea. Agian ez dute lehenengoan saririk irabaziko, baina hurrengoan, agian accesit bat irabaziko dute; bilakaera bat izaten da hor. Zentzu horretan, idazleentzat parte hartzea bera oso gustagarria dela nabarmenduko nuke; saria ateratzea, noski, zer esanik ere ez. Mezu horrekin amaituko nuke: jendea, animatu. Aurten irabazi duen 17 urteko Maxe Zinkunegi bezala, ziur nago Aian eta Orion gazte ugari daudela gaitasuna dutenak baina pausoa ematera ausartzen ez direnak, idatzitakoa kaxoian gordetzen dutenak. Horiek animatu nahiko nituzke. ■■■



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 - ORIO - 943-83 07 84
lizasos@gmail.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Eusko gudariak, 35 - ORIO
(sarrera Arrantzale kaleetik)



Orio elikatuz Bizi



MARIJO

Eusko Gudari, 8 beheko - ORIO
943-13 47 29



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 - 20810 Orio - Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL
AROTZTEGIA

Neurriko armarluak eta egurlanak

Altxeri bidea, Bati-Aia etxea - AIA-ORIO
943-83 11 75 - 445 70 84 91
mendi@arotegi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 beheko
ORIO
943-57 53 61
oinari@podologia-oinari.com
www.podologia-oinari.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 - 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com - ORIO

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
komunikatzen gabe*

Ander Zinkunagi
667 74 02 79



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa






Ubegun Industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 - FAX-a: 943-13 01 44

Orgasmoaren arrakala



EGOITZ DORRONSORO

Izenburuak argi adierazten duen bezala, orgasmoaren arrakalaz hitz egingo dut gaur, *La brecha orgasmica* liburuan oinarriturik. Batik bat, praktika edo harreman heterosexualetan dagoen arrakalaz. Ikerketa askok erakusten dute harreman heterosexualetan emakumeek orgasmo askoz gutxiago dituztela eta ikerketa horiei guztiei genero ikuspegia gehituz, ondorioztatzen da ez dela biologikoa. Hau da, gizarte matxista eta androzentrikoaren ondorioa dela.

Androzentrismoarekin zera esan nahi da, gizona erdian jartzen duen mundua ulertzeko begirada. Ikuskera hori genero ezberdintasunaren ondorio bat da. Sistema honetan, begirada maskulinoa unibertsalizatzen da, beren ezaugarri, behar, arazo, kezka, zailtasun eta desirekin; emakumeak eta beraien desira, ezaugarri, beharrak... baztertuz. Beraz, maskulinoa dena bilakatzen da neutro edo unibertsal. Horren guztiaren ondorioz, gizartean gai batzuk gehiago interesatzen dira, eta egoera batzuk kezka sortzen dituzte edo eztabaidatzen dira. Baita sexuarekin erlazioa duten gaietan ere, hala nola orgasmoaren arrakala.

Sexua koitoan zentratzeak arazo larriak dakartza, ez pertsonon sexualitate aukerak mugatzen dituelako soilik, baizik emakumeen gehiengoak ez duelako praktika horrekin edo horrekin bakarrik orgasmorik lortzen. Azken ideia hori, goiko paragrafoarekin lotzea garrantzitsua da, hots koitozentrismoa androzentrismoaren ondorioa dela ulertzea. Soilik horrela ulertzen baita emakumeen gehiengoak orgasmoak edukitzean ez dituen praktika bilakatzea sexuaren praktika gorena. Eta nola ez, emakumeen gehiengoak orgasmoak edukitzeko gainontzeko praktikak gehigarri edo *preliminar* kontsideratzea. Are gehiago sexuaren funtzioa erreproduktibotik aldentzen joan denean.

Ona hemen datu batzuk: 2016an Espainian eginiko ikerketa batek dio emakumeen %52,6k orgasmora iristeko zailtasunak dituztela beti edo ia beti; gizonen artean, berriz, %19,8k. Zailtasunak batzuetan izaten dituzte, emakumeen %45,7k eta gizonen %18k. Eta arazoak ia inoiz ez dituzte izaten, gizonen %80,2k eta emakumeen %47,4k. Egongo da arrakala hori gizon eta emakumeen ezberdintasun biologikoetan oinarritzen duenik, baina 2017n AEBtako beste ikerketa batek argitzen du bidea. Galdeketa horretan, orientazio sexuala ere kontutan hartu baitzen. Bertan, azken hilabeteen sexu praktika heterosexualak izandako gizonen %95ek beti edo ia beti eduki zuten orgasmoa, eta emakumeen kasuan, %65ek. Erlazio homosexualetan, berriz, gizonen %89k eta emakumeen %86k.

Datu horiek argudio biologizista ezeztatzen dute, bestela gizon homosexualen %100ek eduki beharko lituzkeelako beti orgasmoak, eta ez gutxiagok. Beraz, gakoa generoan dagoela esan genezake. Hau da, emakume bezala hezi den pertsona; besteen zainketarako eta onespenerako sozializatzeraz bideratu dena. Edo gizon bezala hezi dena, norbere buruari begiratzera bideratua den gure kidea. Oraingoan ere, eredu matxista baten ondorio da arrakala, eta berriz zaintza egozten zaion emakumezko gorputza da kaltetua.

Beraz, badugu zer pentsatu gizon bezala erlazionatzen garenok, gehiago harreman heterosexualak ditugunok. Eta gogoratu, mihia, hamar hatz eta imajinazioa baditugula kidearen/kideen plazera lantzeko. ■■■

**MIHIA, HAMAR HATZ
ETA IMAJINAZIOA
BADITUGU
KIDEAREN/KIDEEN
PLAZERA LANTZEKO**



Portu
Enstela - Jaitzea

Kazolita, baserriko pilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEINAK

Tel: 943-13 00 22 - Fax: 943-13 71 50
sagasti@oriokoikastola.com
Euzko Gudar, 7
20800 Orio

Kaltzateko materialak
PVC eta aluminioa - Isolamendu termiko eta akustikoa
Sainmenia osteko zerbitzua



BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros
Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36



Sinergia
fisioterapia eta kirolak

Ibai ondo, 1 beheko • ORIO
943-13 05 77 • 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- Lesioak: bihurturak, tendinitisiak, zointzurak, kontrakturak, hanka handiurak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hesureko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errehabilitazioa.
- Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze limfatikoa, arnas fisioterapia, kinesioaping-a, pilates, abdominaleko gimnasia hipopresiboa (GHI), REDCORD.



Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia - Tala-ahinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia



SU KIA
SU KOREA JASOZ

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oñaskoak eramateko
Ogitarretakoak
Plater konbinatuak
Tienaza oderra
(abonatu uneentzako parkoa)

Abaramendi 38, beheko 1
ORIO • 943-89 21 29



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
612137anahizkuntza.net

Vinyasa yoga



TESTUA: JESICA MORALES

Jesica Morales naiz eta yoga irakaslea naiz 2007tik. Yogan, estilo eta aldaera ugari daude, baina, gaur, nire eskoletan irakasten eta praktikatzen dugun estiloaz hitz egingo dizuet: Vinyasa yogaz, hain zuzen. Ezer baino lehen, aipatu, nire eskolak edozein motatako publikoarentzat irekita daudela, eta yoga mota hori ere edozeinek praktika dezakeela: umeeak, nerabeek, helduek, haurdun daudenek, erretiratuek... bakarka, bikotean edota familian.

Vinyasa yoga zer den azaltzen hasiko naiz. Modu errazean esatearren, mugimenduaren eta hasnarketaren arteko bateratzea edo sinkronizazioa dela esango nuke. Kontzentrazioa hobetzen laguntzen du, eta zenbat eta gehiago praktikatu, orduan eta hobeto egiten da. Yoga modu honetan, harnasketa bakoitzean mugimendu bat egiten dugu, eta airea da trantsizio bakoitza gidatzen duena. Sekuentzia batetik besterako tartean, edota sekuentzia arin batetik eta intentsuago baterako tartean, airea berritzen dugu eta atseden hartzen dugu, kontzentrazioa berreskuratzeko. Praktikatzan duenaren arabera izaten da intentsitatea ere.

Hasnarketaren gaineko kontzentrazioari eustek, buruaren eta gorputzaren

errendimendua hobetzea ekartzen du, errendimendu mental eta fisikoa. Praktikatzan duenarentzat orainean ainguratzeko modu bat da, arreta guztia egiten ari den horretan jarri behar baitu, tentsio guztiak alboratuz, buruan izan ditzakeen irudi eta pentsamendu guztiak baztertuz. Kontzentrazioa oztapatu dezaketen gauza guztiak burutik ezabatzea da lortu behar duena, eta arreta guzti-guztia egiten ari den horretan jartzea. Dena dela, horrekin ez dut esan nahi gure indar guztiak burua zurian lagatzera bideratu behar ditugunik, ez. Gauza da gure gogoak, gure burua heztea orainean egon dadin, modu horretara, gauza guztiak argiago ikusteko gai izango baita.

Helburua izango da yoga eskoletan ikasten duguna gure egunerokoan praktikan jartzea, yoga izan dadin gure sentipenak hobeto kudeatzen lagunduko digun erreminta.

Pandemiaren ondorioz, antsietate eta depresio kasuak ugartu egin dira herritarren artean, eta baita beldur eta

**ORAINEN EGOTEN,
KONTZENTRAZIOA
HOBETZEN ETA GAUZAK
GARBIAGO IKUSTEN
LAGUNTZEN DU**

ziurgabetasun sentipenak ere. Egoerara moldatu beharra izan dugu guztiok, eta geuk ere yoga eskolak modu birtualean ematen hasi beharra izan genuen, hainbat arrazoiengatik: alde batetik, beharrezkoa iruditzen zitzaigun gure ikasleei aukera ematea beren buruari eskaintzen zioten tarte hori izaten jarraitzeko; bestetik, elkarrekin lotura izaten jarraitzeko beharra geneukan; eta azkenik, bakardaderi eta pandemiak eragindako beste horrenbeste sentazio txarri tartetxo batez aurre egin ahal izateko modua ere bazen.

Izan ere, eskoletara joateak, izan aurrez aurre edo izan birtualki, besteekin nolabait konektatuta egoteko modua eskaintzen die pertsonei, komunitate baten parte direla sentiarazteko aukera, besteekin enpatizatzea, elkarri laguntzea.

Nik uste pandemiak lagundu digula ikusarazten geure burua zaintzeak zenbaterainoko garrantzia duen, geure burua zaintzen ikasteko bideak landu behar ditugula, eta horrez gain, inguruko osasuna zaintzea ere badagokigula, osasuna eta energia hortik etorriko zaizkigula.

Eta hain zuzen ere, horixe da Vinyasa yoga: dedikazioa, konstantzia eta norberaren eraikitzea.

Namaste. ■■■

PUBLIZITATEA



**SAGARDOTEGIA
SATXOTA**

Urtarrilean
bueltan izango gara,
denboraldiari hasiera emateko

Santio Erreka 3 | 943-83 57 38



ARDORA
arraindegia

Eusko Gudari, 4
☎ 943-09 28 27 ☎ 623 47 57 52
ardoraarraindegia@yahoo.com
ORIO



Deitu eta etorri!!
943-37 26 91 - 630 77 73 46

Irekiera urtarritak 15
Urdaiba baserria
20170 Aginaga-Usurbil



UKT

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK
UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPE ELK.
GUKA ZERBITZUAK

ESPazio KOMERTZIALAK

TELEBISTA PAPERAK ATARI DIGITALAK

**KOMUNIKAZIO
+
MARKETIN ZERBITZUAK**

- ESTRATEGIA
- PUBLIZITATE KANPAIAK
- IDENTITATEA +BRANDING
- DISEÑU LANAK
- WEBGUNEAK ETA MARKETING DIGITALA
- EDUKIEN SORKUNTZA
- IKUS-ENTZUNEKDAK
- ARGITALPEN DIGITAL MULTIMEDIA

☎ Araba kalea 27, 20800 Zarautz (Gipuzkoa) • Sorea 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943-81 38 41 ☎ gukazerbitzuak@ukt.eus

Euskarari dagokionez, nolako Orio nahi dugu hamar urte barru? (V)



TESTUA: ORIOKO AEK EUSKALTEGIA

Orio herri euskalduna da, euskararen arnasmuneetako bat. Hala ere, herrian badira euskara ez dakiten herritarrak ere, eta Orioko AEKn urteak daramatzagu horiek euskalduntzen eta alfabetatzen.

Urte hauetan guzitetan, herriko eragileekin ekinga puntualak egin izan ditugu euskararen erabilera sustatzeko, baina etorkizunean herritarrek eta eragileek jarrera aktiboa hartzea nahiko genuke. Azken urte hauek erakutsi digute Orio herri anitza dela. Gaur egun hainbat herrialde ezberdinetako ikasleak ditugu euskaltegian, norbera bere helburu eta gaitasunekin. Jatorri, genero eta klase sozial guztien gaintetik, batzen eta herri egiten gaituena euskara izan dadin, herritar guztion inplikazioa eta elkarlana ezinbestekoa da, orain arte bezala.

Gure aldetik, horretarako giltzak garbi ditugu: euskara ikasten ari denarekiko enpatia izatea, pertsona orori aurreneko hitza (eta hurrengoak) euskaraz egitea, ez epaitzea, pazientzia izatea eta esfortzua egiten ari denari laguntzea.

Horretarako ezinbestekoa da baliabide pertsonal, ekonomiko eta kulturalak bermatuko dituen harreman-sare sendoa izatea herritar, eragile eta administrazioen artean.

AEKn garbi dugu: etorkizuneko Orio euskaldunagoa egingo dugu guztion lan eta ahaleginari esker. ■■■



TESTUA: MARIA MAESTRA HAURRESKOLA

Maria Maestra Haurreskolan modu kontzientean egin dugu euskararen lanketa, duela hamabost urte ateak zabalduta genituenetik. Euskara lehenetsi dugu betidanik, eta horretarako behar diren jarduera guztiak jarri dira martxan, haur eskolan dugun euskara planaren barruan.

Haur askok gurekin dauden hilabeteetan zehar egiten dituzte lehen hitzak, eta hori kontuan izanik, hizkuntza zaintzeak guretzat duen garrantzia handia da.

Familia askotan bermatua egoten da haurrak lehen hitza euskaraz egitea, baina zenbaitetan ez, eta gu saiatzen gara hori hala izan dadin; batzuetan lortzen da, eta besteetan ez. Ama hizkuntza gaztelania duten haurrei euskaraz egiten diegu lehen momentutik, eta hemengo ereduarekin hazten dira.

Aldizkarian egin zaigun galderari erantzunez, etorkizunera begira, haur eskola euskaldun bat ikusten dugu hamar urte barru, orain arte izan den bezalakoa. Bide horretan, haurrei euskara erakutsiz, gaztelania nagusi den etxeetan euskara sartzea izan daiteke herri mailan egin dezakegun ekarpen nagusia. Zubi lanak egitea familien eta euskararen artean, haurrak euskaldunduz.

Familia askorentzat, haur eskola izaten da euskarazko lehen erreferentzia, eta horren alde jarraituko dugu lanean, orain arte egin dugun bezalaxe. ■■■

ELURRA MENDIAN

Zerbat animalia ikusten dituzu?



Sudoku

(pini sudoku bakoitzeko letra, dagokien bikoitza, Gogoratu hieki bakoitzak behin agertu behar duela arabe, letra eta lau lau bakoitzeko area bakoitzeko)



A			Z
		P	
	Z		
O			


B			I
L		B	
	A		



A	P		
		A	
			I
		Z	

DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.





IZEIA

- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriak. Bola guztiek dute pareak, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

Garaje ibxia alokagai Orion, Baxoalde kalean. Infor-mazio gehiagorako, deitu 615 15 03 14 zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Kolon Txiki jatetxea zerbitzari euskaldun baten bila dabil. Informazio gehiago behar duenak 628 84 65 58 telefono zenbakira dei dezake edota juanjokolontxiki@gmail.com helbidera idatzi.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Iragarkietarako bokoak. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Tel. 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Tel. 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketak edo taternako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. esperientzia dut zeregin horretan eta baita prestutasun osoa ere. Jarri harremanetan honako telefono zenbakian: 695 37 82 60. Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindu du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbilgo baserri batean. Interesik izanez gero, deitu 607 66 86 03 zenbakira. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera
1	02:48 eta 15:16	08:56 eta 21:18
2	03:39 eta 16:07	09:48 eta 22:07
3	04:28 eta 16:56	10:38 eta 22:55
4	05:16 eta 17:44	11:27 eta 23:42
5	06:03 eta 18:32	12:16
6	06:51 eta 19:21	00:29 eta 13:05
7	07:40 eta 20:11	01:17 eta 13:54
8	08:31 eta 21:04	02:07 eta 14:46
9	09:26 eta 22:03	03:00 eta 15:42
10	10:28 eta 23:08	04:00 eta 16:42
11	11:36	05:06 eta 17:46
12	00:16 eta 12:44	06:15 eta 18:47
13	01:18 eta 13:44	07:18 eta 19:42
14	02:10 eta 14:34	08:12 eta 20:29
15	02:55 eta 15:16	08:58 eta 21:11
16	03:33 eta 15:54	09:38 eta 21:49
17	04:09 eta 16:30	10:15 eta 22:24
18	04:43 eta 17:04	10:51 eta 22:59
19	05:16 eta 17:37	11:36 eta 23:34
20	05:49 eta 18:10	12:01
21	06:23 eta 18:45	00:08 eta 12:36
22	06:59 eta 19:22	00:45 eta 13:14
23	07:38 eta 20:04	01:24 eta 13:56
24	08:23 eta 20:52	02:08 eta 14:43
25	09:17 eta 21:51	03:00 eta 15:39
26	10:23 eta 23:04	04:03 eta 16:45
27	11:42	05:17 eta 17:58
28	00:23 eta 13:01	06:34 eta 19:09
29	01:36 eta 14:11	07:46 eta 20:13
30	02:38 eta 15:10	08:48 eta 21:09
31	03:31 eta 16:02	09:42 eta 21:59

FARMAZIAK-URTARRILA

ZARAUTZ

12, 29 eta 30	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
20.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
1, 2, 3, 4, 10, 24 eta 31	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
15, 16, 21 eta 2.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
13 eta 25.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
7, 14, 19, 22, 23, 26 eta 28.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
6, 8, 9, 11, 17 eta 18.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
5	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

ORIO

URTARRILAK 13, OSTEGUNA

Dokumentala: *Yes, We Fuck!*.
Etxeluze gaztetxean, arratsaldez.

URTARRILAK 22, LARUNBATA

Jaialdia: Kaosa eta Dilistak.
Etxeluze gaztetxean, egun guztian.

URTARRILAK 30, IGANDEA

Izena emateko azken eguna:
Otsailaren 11n Etxeluze gaztetxean
egingo duten Orion Musik Apest
bertsio gauean parte hartzeko.
oriokogaztetxea@gmail.com

AIA

URTARRILAK 8, LARUNBATA

Kirola: Aiako I. Pala Txapelketa
Mistoaren finalak.
Aiako pilotalekuan, arratsaldez.

URTARRILAK 22, OSTIRALA

Estreinaldia: Julen Alonso
musikariaren eta Oinkari dantza
taldearen *Eskuetan bihotza*
ikuskizuna.
Aiako probalekuan, 22:30ean.



DATA ZEHAZTU GABE

Antzezlanak: *Losers*, Aitziber
Garmendia eta Jon Plazaola aktoreen
eskutik.
Aiako probalekuan.

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karkara.eus e-posta helbidera bidali Urtarrilaren 21a baino lehen.

Saria: K5 txakolin kaxa izango da. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Abenduko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 37. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Sorkunde Lizaso** bazkidea izan da irabazlea.

Puntua jarrita

Jon Itsaso.
Doinua: Haizeak bidali du.

1

Ikusiko al gea arratsalden parken?

Azken urte hauetan
ez degu failatzen,
gurasok eserita
haur denak jolasten
nahiz ta eguraldiak
ez dun asko laguntzen

2

"Kontuz horrekin" eta
"hori ez" esaten
arratsalde guztian
nago hitz egiten
airez aldatu beharra
hasi naiz sentitzen
apustun bat tarteko
hasiko naiz mugitzen

3

Konturatuta nago
taktika ona dela
ordu libre hartzeko
balio duela
ingurukoi galdetuko
diet bestela
gustura ikusi ditut
jantzita txapela

Hurrengo bertsolaria:

Lander Sarasola.

Puntua:

Lagun arteko proba
egin da famatu.

**HASI BERTSOTAN ATALEAN PUNTUKA ARIKO DIRA BERTSOLARIAK. ORAINGOAN JON ITSASORI
JARRI DIO PUNTUA IÑAKI VERHEGGEK: "IKUSIKO AL GERA ARRATSALDEN PARKEN?".**



SAIOA PERONA



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

MATRIKULAZIOA
IKASTOLAN:
URTARRILAREN
17tik 28ra

ATE IREKIAK:
URTARRILAK
15



ORIO GARA, BAZATOZ?

www.oriokoikastola.eus

Tel.: 943 834 704

E-Posta: orio@ikastola.eus

Webgunea: www.oriokoikastola.eus

Bulego ordutegia: 08:30-13:30 / 14:30-18:30

